

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Lizentzia bat esleitzeko lehiaketa, automobiler (taxiz) bidaiarien hiriko eta hiri arteko garraio zerbitzua emateko

Udalbatzak 2016ko urriaren 19an onartu du automobiler (taxiz) bidaiarien hiriko eta hiri arteko garraio zerbitzua emateko lizentzia bat esleitzeko lehiaketa arautuko duten baldintzen agiria. Hortaz, honen bidez iragartzen da lehiaketa horren laburpena.

1. Erakunde esleitzaila: Donemiliagako Udala.
2. Kontratuaren xedea: taxi lizentzia baten esleipena
3. Izapidetzea, prozedura eta esleitzeko era:
 - a) Izapidetzea: arrunta.
 - b) Prozedura: irekia.
 - c) Esleitzeko era: lehiaketa.
4. Espedientearen azterketa: Donemiliagako Udalaren bulegoetan (Andia kalea, 46, Ordoñana), jendea atenditzeko orduetan (09:00etatik 14:00etara arte), iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera eskaintzak aurkezteko epea bukatu arte.
5. Agiriak eskuratzea: Donemiliagako Udalaren bulegoetan, Ordoñanan, eskuratu ahal izango dira agiriak.
6. Eskaintzak aurkeztea:
 - a) Aurkezteko lekua: Donemiliagako Udalaren Erregistro Orokorrean, Ordoñanan, edo bestela azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, 16. artikuluan ezartzen dituen bideetako edozeinetatik.
 - b) Epea: hamabost egun, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Azken egun hori larunbata edo jaieguna izango balitz, hurrengo egun baliodunera arte luzatuko litzateke epea.
 - c) Ordutegia: 09:00etatik 14:00etara, astelehenetik ostiralera.
 - d) Postaz igortzea: Herri administrazioen kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrak 80. artikuluan ezarritako baldintzetan.
7. Eskaintza eredia eta aurkeztu beharreko agiriak: lizitatzailaek baldintza agirian jasotzen den eskaintza ereduaren arabera aurkeztuko dituzte eskaintzak, eta bertan adierazitako agiriak ere aurkeztuko dituzte.
8. Eskaintzak irekitzea: irekiera udaletxean egingo da, ekitaldi publikoan, eskaintzak aurkezteko epea bukatu eta gero.
9. Iragarki gastuak: esleipendunaren kontura.

Erdoña, 2016ko azaroaren 15a

Alkatea

DAVID LÓPEZ DE ARBINA RUIZ DE EGUINO